nalari geldiaraziko dizkiogula haren saiakerak: oraingo egoeraz baliatzeko egiten dituenak eta gure lan-baldintzen kontura aberasten jarraitzeko egiten dituenak. Gobernuei, bestalde, esan behar diegu politika publikoak eta sozialak aldatu behar dituztela, osterantzean, aurrean izango gaituztela”.

### Patronala geldiarazteko ardura.

Alde horretatik, Muñozek adorezko hitzak eman zizkien bertan zeuden guztiei, eta enpresetan lankideak gre-



ELA ABARROTA EL FRONTÓN LABRIT, DE IRUÑEA, EN UN ACTO PREVIO A LA HUELGA GENERAL

# “Hay que hacer frente al chantaje de la patronal”

**La huelga general del próximo 21 de mayo es “legítima e imprescindible” para hacer frente al chantaje de la patronal** y a los ataques a los derechos de los trabajadores/as, tal como afirmó el secretario general de ELA en un acto celebrado en el frontón Labrit, de Iruñea, en el que tomaron parte 2.000 delegados y delegadas del sindicato. Muñoz aseguró que “tenemos todas las razones del mundo” para convocar una huelga general.

En este acto, encuadrado dentro de la campaña en favor de un mejor reparto de la riqueza y de calentamiento de motores cara a la huelga general del 21 de mayo, intervinieron delegados de empresas con expedientes, que relataron su experiencia.

Muñoz subrayó que la crisis es consecuencia de una codicia sin límites de los poderes económicos. “Ahora que el sistema se colapsa quieren robarnos todavía más: saqueando las arcas públicas, negándose a pagar impuestos, chantajeando en la negociación colectiva y exigiéndonos más sacrificios”, afirmó.

En este contexto, defendió la convocatoria de huelga general para el 21 de mayo. “Se va a dar oxígeno a la lucha de los trabajadores/as ante el chantaje al que están siendo sometidos por parte de la patronal en las empresas. Un ataque a los derechos laborales para el que cuentan con el apoyo de los gobiernos”.

El secretario general de ELA se refirió, en otro momento de su intervención, a la respuesta de UGT y CCOO a la convocatoria. “Dicen que ahora no toca, que ésta es una herramienta reservada frente al ataque de las condiciones laborales”, al tiempo que subrayó que, “precisamente por eso la hemos convocado, porque se atacan esos derechos”.

Muñoz aludió también a la cumbre del G20, en la que, en su opinión, no se ha adoptado ninguna decisión que ponga en tela de juicio a las instituciones que tienen que ver con el reparto de riqueza.

**Seguimiento mayoritario.** En otro momento, el secretario general de ELA se mostró convencido de que la huelga será secundada mayoritariamente por los trabajadores/as, que “quieren hacer frente a la destrucción de empleo, el chantaje de la patronal e impulsar un cambio de las políticas públicas”.

Al término del acto, los asistentes se dirigieron en manifestación hasta el monumento de los Fueros, en el Paseo de Sarasate.

**Peligro para los trabajadores/as.** Mitxel Lakuntza, coordinador del sindicato en Navarra, por su parte, señaló



que esta crisis ha demostrado que “hay mucho pájaro suelto”, y denunció la alianza entre la patronal y el Gobierno de Navarra, que firma “la inmensa mayoría de los EREs que se presentan”. Asimismo, se refirió a la relación entre UPN y PSN, a los que llamó “UPSN, unidos por sus negocios, o por sus nóminas”. Del mismo modo, criticó con dureza la actuación de UGT y CCOO en Koxka, donde estos sindicatos -dijo- “han roto todas las reglas del juego y se han comportado como extensiones del departamento de Recursos Humanos”. “Se han dedicado a acallar voces críticas, de gente luchadora, y han ido a por ellos porque merecen la pena, porque tienen principios. UGT y CCOO son un verdadero peligro para los trabajadores”, criticó.

El coordinador de ELA se refirió, asimismo, a la Medalla de Oro concedida a estos sindicatos y a la patronal navarra, y recordó una de las frases pronunciadas en la concentración alternativa organizada por varios sindicatos: “Las ideas nacen de la calle, nunca lo olvidemos, y los sindicalistas, también”.



## “ZAPATAZO” UNIBERTSITATEAN

**ELAk Euskal Herriko Unibertsitatean duen atal sindikalak hainbat ekimen egin ditu**

azken aste hauetan bestelako gizarte-politikak, beste hezkuntza-politika eta aberastasunaren bidezko banaketa aldarrikatzeko.

Duela hilabete batzuk Irakeko kazetari bat ezagun egin zen Ameriketako Estatu Batuetako presidente ohi George W. Bushi bere zapatak bota zizkiolako prentsaurreko batean. EHUko atal sindikalak ere zapatazoa botatzeko aukera eskaini zuen Gasteiz, Leioa eta Donostiako Kanpusetan. Horretarako hainbat neoliberalen argazkiak jarri zituzten, jendeak bat aukeratu eta zapatak bota

zitzan. Punteriarekin asmatu zuenak (eta besteek ere) sagardoa, gazta eta txorizoa dastatzeko aukera ere izan zuen.

Halaber *Aberastasuna Banatu* kanpainako notiziak eta grebaren eskuorriaren banaketa masiboa egin genuen.

Unibertsitatean ere milaka arrazoi daude greba orokorra egiteko: negoziazio kolektibo eza, txanxulloak, gastu sozial eskasia, prekarietatea, pribatizazioa, merkantilizazioa... Hauek danak nabarmen pairatzen dira gure kanpusetan.

Horregatik ELAko EHUko Atal Sindikalak bat egiten du grebarekin ozen.

Grebarako arrazoiak azaltzeko, eta EHUko egoerari buruzko hausnarketa sakona egiteko, Jardunaldi berezia antolatatu zuten maiatzaren 8an, goizez, Leioako Kanpusean.



espekulazioa dira; hala eta guztiz ere "ondorioak guri, langileoi, ordainarazi nahi dizkigute". "Patronalak xantaia egiten du negoziazio kolektiboan: soldatak eta lan-baldintzak murriztu, eta gobernuek oraingo egoerara ekarri gaituzten errezeta berak erabiltzen jarraitu nahi dute". ELAko idazkari nagusiak amaitu zuen esanez greba egiteko arrazoirik ez dugula faltan, eta arrazoiak ez direla politikoak, klasekoak baizik.

Ekitaldiaren beste une batean, ELAko idazkari nagusiak esan zuen CCOOen eta UGTren lan-harremanen eredia gizarte-elkarrizketan dagoela oinarriturik; baina elkarrizketa hori, dagoeneko, porrot eginda dagoela. "Gizarte-elkarrizketa horren emaitzak

balari bihurtzeko ahalegin bereziak egiteko esan zien. "Patronala geldiarazteko erantzukizuna geuk dugu, gure jendea babesteko, eta denon artean, elkarrekin, egin dezakegu" adierazi zuen.

Muñozentzat krisiaren jatorriak kapitalaren diruzalekeria eta kontrolrik gabeko

## El modelo sindical de ELA no es el del “diálogo social” -que ha fracasado- sino el de estar con la gente más desfavorecida

hauek dira: langabeziaren tasa %15; behin-behineko kontratazioarena %30; pre-sio fiskala 8 puntu beherago Europako batez bestekotik; 7 puntu beherago gastu sozialean... "Argi dago hori ez dela, ezin dela izan, ELAren eredia" esan zuen.

Azkenik, Txikik eskertu zuen bertan zeuden ordezkarien lana, eta Maiatzaren Lehenaren arrakasta greba orokorraren aitzindaria bihurtzeko gogo bizia igorri zien.



# ERASOEI AURRE EGINGO DIEGU...

## 1. Patronalaren xantaiari aurre egin eta enplegu suntsiketa geldiarazteko.

Azken 15 urtetan lan mundua prekarizatu dute gure kontura aberasteko: hiru langiletik bat ez da iristen hileko 1.000 euro kobratzera.

Eta orain gorriak datozen honetan, ez diete uko egin nahi euren itzelezko etekinei. Horretarako, behin behinekoei eta azpikontratei ez zaie kontratua berritzen; arrazoirik gabe kaleratzen dituzte langileak; erregulazio espedienteak aurkezten dituzte funtsarik gabe eta konbenio hutsalak sinatzeko xantaia darabilte.

Arazoi gabeko kaleratzea oraindik gehiago merkatzea nahi dute enpresariak eta, bide batez, kontu publikoak arpilatu: dirulaguntza gehiago, beherapen fiskalak, langabeziako prestazioak kontratuak subentzionatzeko erabili... Ase ezinak dira, beti izan diren bezala.

## 2. Bere lan baldintzak eta enpleguaren alde borrokan -eta askok greban- dauden langileei babes emateko ere.

## 3. Erkidego Autonomo eta Nafarroa nahiz Espainiako erakundeen politika publikoak aldarazteko, arpilaketa zuzendu beharrean areagotu egiten baitute.

### EXIJITZEN DUGU:

- **Enplegua sortu behar dute.** Zerbitzu publikoetara esleitutako gastu sozialak egiturazko enplegua egonkorra sortzen du.
- **Fiskalitate zuzenagoa.** Gehien irabazten dutenek gehiago ordaindu eta gutxien dutenek gehiago eskura-

tu ahal izateko, azken erreformak bertan behera utzi behar dituzte. Enpresari eta kapitalaren errenten iruzur fiskalarekin bukatu beharra dago.

- **Gastu soziala handitu, aurrekontuen politika erabat aldatuz.** Helburua giza eskubideak bermatzea da, hartara pertsonak eta familiak lagunduz (gizarte zerbitzuak, etxebizitza, osasungintza, hezkuntza...)
- **Giza prestazioak eta estaldurak handitu ditzatela** (langabezian, oinarrizko errentan...)
- **Politika publikoen diseinuan kontrol eta partaidetza soziala** eta demokratikoa bermatu dezaten.

## 4. Ekonomi, lan eta gizarte politikak Euskal Herrian erabaki daitezten

Horregatik lan eta gizarte arloan legegintzako ahalbidea exijitzen dugu eta erabateko eskumenak Gizarte Segurantza, Lan Osasuna eta Formakuntza eta Enpleguan.

## 5. Nafarroan indarrean dagoen eta Erkidego Autonomoan ezarri nahi den elkarrizketa sozialaren eredia errefusatzeko.

Enplegua suntsitzen da, arrazoirik gabe kaleratzen da, behin behinekoei ez zaie kontratua berritzen... Krisia deitzen diote honi. Eta krisiaren aurrean denok ontzi berean goazela diote. **BAINA HORI EZ DA EGIA! LANGILE KLASEA EZ GAUDE EZ GOBERNU, BANKA EZTA PATRONALEKIN!**



# ERASOEI AURRE!



# “El 21 de mayo vamos a parar; vamos a pararles”

UN AÑO MÁS MILES DE TRABAJADORES/AS RESPONDIERON A LA CONVOCATORIA DE ELA Y TOMARON LAS CALLES DE BILBAO EN UN 1º DE MAYO ESPECIAL, ANTE LA CERCANÍA DE LA HUELGA GENERAL

**La huelga general del 21 de mayo centró la intervención del secretario general de ELA.** Txiki afirmó

que hay que sacudirse la indiferencia y que si dejamos que la insolidaridad gane terreno estamos perdidos. “Hay que llegar a nuestra gente, al último rincón, y convencer de que trabajando de manera organizada podemos influir en la defensa de nuestros intereses”. “Esta crisis es una oportunidad para un movimiento sindical que da la cara por su gente, que no se resigna, que no le es indiferente la sociedad en la que vive”, rubricó.

Continuando con las razones que hacen imprescindible la huelga general, aseguró que

› N.I.

hay que hacer frente al chantaje de la patronal y que no es un problema de razones sino de fuerza. “La huelga va a llevar oxígeno a las empresas para defender las condiciones de trabajo, la negociación colectiva. Donde tengamos organización no podrán, y donde



nos pillen con la guardia baja harán lo que quieran. Nuestra primera responsabilidad como sindicato estriba en ser eficaces en esa lucha”, afirmó.

**Krisi hau aukera bat da bere jendearengatik aurpegia eman eta etsitzen ez duen mugimendu sindikalarentzat**

**Políticas solidarias.** Muñoz se mostró convencido de que las instituciones pueden hacer políticas más solidarias, por lo que hay que forzarles a ello. “Si no hablamos de eso la cuenta la vamos a pagar los trabajadores por tres veces: con destrucción de empleo, con rebaja salarial y pagando los impuestos casi en exclusiva”, auguró. En este sentido, reivindicó el incremento del gasto social “porque la pobreza crece”.

El secretario general de ELA aseguró que “estamos en fase de agitación” porque “el papel del sindicato es no dejar el camino libre para que hagan lo

que les venga en gana con nuestra gente". "Han decidido poner nuestros derechos en fase de liquidación -explicó- y no podemos mirar a otro lado". "La huelga general del 21 de mayo tiene que ser una demostración de lucha, de participación, de ocupar la calle democráticamente... Una huelga general activa en la que la clase trabajadora defiende sus intereses", aseguró, al tiempo que auguró el éxito de esta movilización. "El sindicalismo reivindicativo está vivo en Hego Euskal Herria".



**Patronal y gobiernos, responsables de la crisis.** Al desgranar los porqués de la huelga, el secretario general de ELA descalificó a quienes desde el gobierno y la patronal afirman que no hay motivos para la misma. "No sólo son los responsables, con sus políticas y actuaciones, de la situación actual sino que, además, pretenden seguir profundizando en las mismas políticas fracasadas: recortar derechos sociales (facilitar y abaratar los despidos, reducir las pensiones, bajar salarios, más flexibilidad, reducir impuestos a las empresas...) y laborales (destronar la negociación colectiva para bajar salarios, aumentar la flexibilidad, incrementar la jornada...)".

Txiki afirmó que hay que defender el empleo y luchar contra la precariedad, la mayor de toda la UE, resultado del "modelo español del diálogo social". "Es un modelo diseñado para que la patronal ganara mucho a costa de la precariedad en época de crecimiento y para que ahora "ajusten" lo

## "Gure eskubideak likidazio fase batean jartzea erabaki dute; ezin dugu beste alde batetara begiratu"

que quieran y como quieran". Denunció, además, que la patronal quiere más, y que ahora chantajea a la negociación colectiva. "Quieren saldar la crisis con un deterioro en las condiciones de trabajo. Instrumentalizan el miedo, e impedirlo debe ser una prioridad sindical".

**Sindicatos de acompañamiento.** En otro momento de su intervención, el secretario general descalificó a CCOO y UGT por afirmar que no hay razones para la huelga

y les acusó de acompañar en las políticas a gobiernos y patronal, de uniformizar políticamente el estado y de tratar de obtener vía ley el monopolio sindical. "Y, cómo no, de obtener financiación del estado", criticó.

Txiki se mostró dispuesto a hablar con el gobierno, pero de las cosas que importan a la gente. "Tenemos que preguntarle, por ejemplo, qué políticas de las que han fracasado va a cambiar, si van a financiar el imprescindible gasto social con la política fiscal de PP, si se va a enfrentar a la patronal, si va a respetar a las mayorías sindicales...", adelantó.

El secretario general de ELA terminó su intervención haciendo un llamamiento a la movilización. "Es una estupidez hablar de pacto social con quienes han decidido que quieren volver a apretarnos las tuercas. Hay que confrontar porque quieren imponer una solución a la crisis favorable a sus intereses". "Vamos a parales", concluyó.



**ELAk manifestazio jendetsua egin zuen Bilbon. Gero 4.500 lagunek parte hartu zuten BECen sindikatuak antolatutako bazkarian, urtero bezala. Greba orokorrerako hogeiei egun faltan mezu nagusiak grebaren premia nabarmentzeko izan ziren.**

# Osakidetza, guztiontzat eta kalitatezkoa

ELAK OSAKIDETZAN DUEN ARDURADUN **MIRARI IRUREK** ARABA, BIZKAIA ETA GIPIZKOAKO OSASUN PUBLIKOAREN EGOERA KEZKAGARRIA SALATZEN DU

› **GORKA QUEVEDO**

## Euskal Autonomia Erkidegoko osasun publikoa gaixo dago.

ELAK behin eta berriz salatu du hori azken urteetan. Baina, larriena zera da: gaixoak ez du hobetzeko itxura askorik. Diagnostikoa argia da, esana dago: osasun sistema publikoa gaixo dago. Pronostikoa ere ez da baikorra, gaixotasuna kronikoa delako. Baina, Mirari Irurek nabarmentzen duenez, pazienteak badu tratamendua: "ez etsi, borrokan jarraitu".

Ez da harrizkoa egoera hau, gure agintari neoliberalak hartu duten estrategiari erantzuten dio. Azken hamaika urteetan ez da handitu gastu publikoa Barne Produktu Gordinaren portzentajeari dagokionez. Datuak adierazgarriak dira oso: 1998. urteaz geroztik EAEn osasunera bideratu den batez bestekoa Barne Produktu Gordinaren %4,2 eta %4,3 bitartean kokatzen da; Europar Batasunean %7,5ekoa da kopuru hori. Mirari Irurek honek guztiak dituen ondorioak salatzen ditu: "Europar Batasunarekiko

dugun tartearen ondorioz 1.800 milioi euro inguru gutxiago inbertitzen dira urtean osasun publikoan".

## Han llevado la sanidad pública a un deterioro inadmisibile

Herritar xumeak dira egoera hone-tan kaltetuenak. "Egungo gastu publiko ez da nahikoa dauden beharrak asetzeko. Administrazioak egiten duen ahalegin urria da osasun publikoak urtez urte bizi duen hondamendiaren arrazoi nagusia da. Osasun publikoan dauden gabezien aurrean herritarrek gero eta osasun gastu gehiago hartu behar dituzte euren gain. Gainera, badago kontutan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat: gero eta herritar gehiago gara, eta horrek gero eta behar gehiago egotea suposatzen du".

**Balantze etsigarria negoziazio kolektiboan.** ELAK exijitzen duen osasun sistemaren oinarriak bi dira.



"Guztionezko izango den kalitatezko Osakidetza nahi dugu", nabarmentzen du Irurek. Azken urteak oso gogorrik izan dira negoziazio kolektiboari

## “LUCHAMOS POR LA SANIDAD PÚBLICA”

**La situación de nuestra sanidad pública es preocupante; a su vez, la sanidad privada se ve fortalecida,** entre otras razones por las ingentes cantidades de dinero destinadas a ella por el Gobierno Vasco. En opinión de Mirari Irure, Osakidetza ha sido incapaz de abordar en profundidad la situación de la sanidad pública y hacer frente a los problemas que la aquejan. "Osakidetza continúa con su política de privatización, en detrimento de la calidad de la sanidad pública. Divide a los colectivos y parchea la situación, sin importarle el deterioro de la sanidad pública".

Al contrario, la Administración incluso afirma que Osakidetza está mejor que nunca. "O están ciegos o cometen una grave irresponsabilidad". La situación de conflicto vivida en el sector durante los últimos años no ha tenido parangón. ELA ha trabajado por plantear medidas tanto para la mejora de la calidad de la sanidad pública como de las condiciones de trabajo de todo el personal. La respuesta de Osakidetza ha sido decepcionante. Ha roto las reglas de

juego en la negociación colectiva, no ha aumentado la inversión en los últimos años, ha mantenido de manera precaria a buena parte del personal, y ha dejado en manos de los intereses privados servicios que deberían ser gestionados desde lo público.

Una de las pautas de actuación de la política del Gobierno ha sido la descapitalización de lo público, especialmente en el ámbito sanitario. Deterioran la sanidad pública, priman la autoconcertación y canalizan a la privada parte de la asistencia sanitaria. Y a quienes, como ELA, con toda legitimidad y rigurosidad en los datos aportados, han criticado y combatido estas políticas los responsables del Gobierno han pretendido desacreditarla. No lo han conseguido. ELA ha estado y seguirá estando a la altura de las circunstancias para reivindicar una sanidad pública de calidad al servicio de las necesidades de la población. La próxima huelga del 21 de Mayo también reivindica políticas públicas de calidad para la sanidad. En ello estamos.

dagokionez, Osakidetzak ez dituelako joko-arauak errespetatu. "2007ko abenduan SME, SATSE eta CCOO sindikatuekin gutxieneko akordioa sinatu zuen Osakidetzaren zuzendaritzak, ELA buru zen gehiengo sindikala bazterrean utzita".

Negoiazio prozesu horrek irakasgai ugari utzi zizkigula dio Irurek. "ELAko liberatu, militante eta afiliatuek mobilizazio ugari bultzatu genituen. Negoiazio-mahaia berriz ere irekitzeko gai izan ginen, eta administrazioen jarrera aldatzeko. Langile eta sindikatu guztien batasuna egon zen bitartean negoziazioan etengabe aurrera egin genuen, administrazioak atzera egiten zuen bitartean. Hala ere, Osakidetzaren zuzendaritzak oso argi zuen banandu eta garaitu taktika, eta hori egin zuten. Zoritxarrez, gehiengoaren interesei iruzur egin zieten hiru bidelagun topatu zituen. Prozesu horretatik ikasi genuen mobilizazioa eta langileen babesa dagoenean Administrazioak atzera egiten duela".

## La sanidad pública tiene grandes carencias, mientras la privada goza de muy buena salud

Osasun publikoan ematen ari den baliabide-eskasia langileen lan-baldintzetan duen eragina agerikoa da. "Eginkizunak ez dira oraindik zehaztu; bitartean, lan-kargak eta erritmoak areagotu egin dira. Azken Lan Eskaintza Publikoa egin zenean argi eta garbi esan genuen ez zela nahikoa, ez zituela beharrak konpontzen. Langile-kopuruaren igoera soilik hain-

bat kategoriatan eman da, eta horietan ere ez da izan nahikoa. Besteetan igo den faktore bakarra lan-kargak izan dira. Hots, lehengo langile kopuru bera dago, baina lan gehiago egin behar dute. Arazo honi langileen batez besteko adina altua izatea gehitu behar zaio. Langileen batez besteko adina 50 urtekoa da, eta ez da bilatu zaharberritzeko neurririk".

## El modelo sanitario actual debilita el ámbito público y refuerza el privado

### Arazoak ez dira konpondu.

Osakidetzako azken grebak eragin zuten faktoreak ez dira desagertu. Are eta gehiago, okerrera egin du egoarak. "Oraingo lan-baldintzak arautzen dituen dekretuak gutxi bultzuei ekartzen dizkie hobekuntzak, milaka langile diskriminaturik gelditzen direlarik. Denontzako osagarririk izan gabe jarraitzen dugu, eta, ondorioz, soldata-aldeak gero eta handiagoak dira".

Lanbide-garapenerako egun dagoen eredia diskriminaziorako hazia dela dio Irurek. "Integrazioa izan beharrean diskriminazioa da Osakidetzaren lan-politikaren ezaugarri nagusia, irizpide subjektiboetan oinarritua dagoelako. Administrazioa nahierara baliatzen da lanbide-garapenez presioa egin nahi duenean".

Osakidetzaren gaixoaren pronostiko kezkagarria agerian uzten duten faktoreak ez dira amaitu. Lehen mailako arretak antolatzeke eta koordinatzeke konponbide egokirik gabe jarraitzen du Osakidetzak. "Arazoa saihestea-

## TRATAMIENTO: NO RENDIRSE Y SEGUIR LUCHANDO

**Todo enfermo que quiera ser curado necesita un tratamiento.** A la hora de hacer balance de la negociación colectiva en Osakidetzeta, Mirari Irure tiene claro cual es el tratamiento que necesita el enfermo: no rendirse y seguir luchando.

**Coherencia:** La clave para que un proceso negociador dé sus frutos reside en identificar, consensuar y mantener hasta el final los contenidos mínimos con los que ha de contar la negociación colectiva y reivindicar en coherencia con los mismos. Los contenidos mínimos, como su nombre bien indica, son mínimos y por ello han de ser irrenunciables.

**Confianza:** Para una lucha eficaz es imprescindible creer en las posibilidades de la lucha conjunta de toda la plantilla; en consecuencia es importante que depositemos nuestra confianza en quienes verdaderamente apuestan por una sanidad para todos/as.

**Trabajo común:** La última experiencia nos ha demostrado que cuando somos todas las categorías que nos ponemos en pie de guerra, es cuando nos toman en serio. Quienes aparcen la coherencia, quebrantan la confianza y dejan al resto en la estacada, no creen verdaderamente en el trabajo en común y optan por el camino fácil de la firma. Así pretenden apuntarse tantos que hemos conseguido el conjunto de quienes salimos a la lucha y aunque pretendan hacernos creer lo contrario, sabemos que son tantos que no nos han hecho ganar la partida. Seguiremos luchando.

ren foro bat sortu dute. Orain arte izan duen eginkizun bakarra lan-egutegiak aldatzea eta osasun-zerbitzuak pribatizatzea izan da. Gai hauek sektore-mahaian eztabaidatu beharrekoak dira, baina ez dute nahi. Horregatik sortu dute foroa, bertako kideak 2007ko abenduan akordioa gutxiengoan sinatu zuten sindikatuak direlako. Hau da, ez dute oposizioirik".

Euskararen egoera ere larria da Osakidetzan. "Euskara Planak ez du behar besteko inbertsiorik, langile guztiei ez zaie ematen euskalduntzeke aukerarik. Beraz, planak ezin du bere funtsezko helburua bete: herritarrei zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan ematea".

Hau guztia irakurrita, argi dago gai-koak ez duela itxura onik.



# "Elkar elikatzen diren lau krisi bizi ditugu"

**SUSAN GEORGE**, GLOBALIZAZIO NEOLIBERALAREN AURKAKO MILITANTEA



## › GORKA QUEVEDO

**Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak gonbidatuta Susan George** Bilbon izan zen martxoaren 24an, krisiaren arrazoi eta ondorioen inguruan hausnartzeko antolatutako formazio jardunaldiaren baitan. Susan George globalizazio neoliberalaren aurkako militantea da, eta bere iritzia ezinbesteko erreferente dira mundu zabalean. Bi izan ziren hitzaldiaren ardatzak. Lehenengoan krisiaren diagnostikoa egin zuen, egoera honetara ekarri gaituzten faktoreetan sakonduz; bigarren zatian gizarte mugimenduek bete beharko luketen paperaz hausnartu zuen, eta bizi dugun ataka larri honetik ateratzeko hainbat neurri proposatu zituen. Hona hemen Susan Georgeren hitzaldiaren hainbat pasarte.

**Krisiaren diagnostikoa.** Sistema kapitalistak bizi duen krisi globalaren inguruan mintzo garenean, ez gara krisi bakar batez mintzo. Elkar elikatzen diren lau krisi daude. Jatorria eta sorburua bera izan ez arren, egoera horiek guztiak elkartu egin dira. Lehenik oina-

rrizko elikagaien prezioen igoerak sortu duen elikadura-krisia dago. Honek herrialde pobreenetan izugarritzko goseak eragin ditu. Bigarrenik pobrezia eta izugarritzko desberdintasunak egotea ahalbidetzen duen sistemaren krisia dago. Hirugarrenik azken hilabeteetan horrenbesteko oihartzuna izan duen finantza-krisia aipatu beharra dago. Azkenik, eta nire iritziz larriena, krisi klimatikoa legoke.

Klimaren krisia larriena dela uste dut, bere ondorioak atzeraezinezkoak izan

daitezkeelako. Neurri egokiak hartuz gero lehenengo hiru krisiak konpondu edo arindu litezke. Naturari eragiten dizkiogun kalteak horren larriak dira balitekeela etorkizunean konponbiderik ez izatea.

**"Los bancos son nuestros, entre otras cosas porque los han llenado de nuestro dinero"**

Askok pentsatuko dute klimaren krisia urrun dagoela, gure belaunaldiak ez dituela ondorioak nozituko. Erratuta daude, ondorioak egun ere ari gara sufritzen. Ekonomia sisteman egindako kalteak konpondu litezke; zerga politikean aldaketak egin litezke, kapitalen mugimenduak kontrolatzeko neurriak hartu litezke. Ingurumenarekin, ordea, hori ez da pasatzen. Gaur izorratzen duguna betiko izan liteke. Poloetako izotzen urtea adibide garbia da.

**Neoliberalismoaren dogma erratuak.** Askok 1929. urtean izan zen krisiarekin alderatzen du egungo egoera, baina beste garai batean gaudela uste dut. Gaur egun neoliberalismoa munduan zehar dago zabaldua, dogma erlijioso baten eran. Ideologia horrek helburu nabarmena du, aberatsak aberatsagoak izatea, betiere pobreen kaltean.

Borroka handia egin beharra daukagu esparru honetan, doktrina horren aurka jo behar dugu. Adibide bat jarriko dut: doktrina neoliberalaren arabera sistema pribatua beti da sistema publikoa baina hobea. Europar Margaret Thatcherren garaian hasi zen doktrina hori betebetearen ezartzen. Ameriketako Estatu Batuetan sistema publikoaren pribatiza-

## REFERENTE OBLIGADO

**Susan George se ha convertido en un referente obligado para cuantos trabajan por hacer posible otro mundo.** Nacida en Estados Unidos, lleva muchos años residiendo en París. Así, desde 1994 tiene reconocida la nacionalidad francesa. Actualmente, es presidenta del comité de planificación del Instituto Transnacional de Amsterdam. En este Instituto se reúnen personalidades académicas de todo el mundo con el fin de procurar más justicia social. Hasta el año 2006 fue vicepresidenta del movimiento surgido en Francia ATTAC (organismo a favor del establecimiento de una tasa a las transacciones especulativas). Ha ofrecido numerosas charlas y conferencias en numerosos países y colabora con muchos organismos internacionales y Universidades. Sus trabajos persiguen un objetivo central: luchar contra el actual modelo de globalización neoliberal.

zioa are eta basatiagoa da, oraindik. Doktrina neoliberalaren defendatzaileek dena pribatizatu nahi dute. Argi utzi behar dugu dogma hori, askok ia dogma erlijiosotzat duten hori, gezurra dela.

Adibide bat jarriko dut. 90. hamarkadan Erresuma Batuan tren eta metro sareak pribatizatzen hasi ziren, garraio sistema hauen funtzionamendua hobetu eta herritarren beharrak hobeto aseko zirela argudiatuta. Urte batzuk igaro dira eta argi gelditu da hori ez dela horrela izan. Gutxi batzuen irabaziaz handitu aldera zerbitzuen kalitatea nabarmen jaitsi da. Erresuma Batuan jendea oso haserre dago, eskaintzen den zerbitzuaren aurkako kekek eta protestak ohikoak dira. Txartel baten prezioa oso garestia da herritar xumearentzat, eta herritarrek keku dira.

Zoritarrez, Nazioarteko Moneta Funtsa zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatzeko neurriak hartzen ari da etengabe, eta horrek izugarritzko hondamendia ekarriko du.

**Merkatuaren alde, herritarren kontra.** Merkatuaren dogma da, agian, hau guztia hobekien laburbiltzen duena. Neoliberalismoaren dogman merkatua Jainkoaren pare dago. Doktrina horren ideologoen gobernurik ez dela behar diote, merkatua delako dena arautzen duen mekanismoa. Hori ere ez da zuzena. Are eta gehiago, merkatua da krisiaren arrazoietakoa bat, ez bakarria, baina bai nagusienetakoa.

Gobernuek eta nazioarteko erakundeek merkatuaren alde eta herritarren interesen kontra egin dute. Lehen ez zen posible pertsona bakar batek merkatuan eragitea; egun, bai. Lehen ezinezkoa zen egun dauden kapital eta lehengaien metaketak egotea. Gobernuek arduraz berezia dute guzti honetan, batez ere kredituen merkatuen desarazteza eragin dutelako.

Lehen neurtuta eta araututa zegoen eskatu zitekeen diru kopurua. Kreditu bat eskatzen zuenak gutxienez eskatutakoaren %10 izan behar zuen diru fisikoan, kreditua eman dizun erakundeari diru hori itzultzeko gutxienezko kopurutzat hartzen zelako. Egundak, muga horiek handitu edo desagertu egin dira. Inolako babesik eta oinarririk gabe kredituak eskatu eta eskatu dira. Ezin ordaindu zitezkeen kredituak ordaintzeko kreditu gehiago eskatzen ziren. Kate hori apurtu denean, egungo egoerara heldu gara. Bankuek ere, noski, badute euren erantzukizuna.

**Aberatsen eta pobreen arteko zuloa handituz doa.**

Neoliberalismoaren beste dogma bat: zergak. Urte askotan esan izan



digute, eta askok eta askok sinistu ere, aberatsek ez luketela zergarik ordaindu behar, pentsatuz aberatsek gero eta aberastasun gehiago sortuko zutela. Zer gertatu da? Aberats horiek ez dutela ekonomia errealean inbertitu, finantza-ekonomian baizik. Era honetan, bi ardatz horiek banatu egin dira. Ez dago zertan ekonomia errealetik pasa behar dirua eta irabaziaz egiteko.

**“De todas las crisis que vivimos la de la ecología es la más grave”**

Espekulazioaren bidez dirutzak lortu dituzte askok, esaterako, hango edo hemengo bankuak erosi edo euren bat-egiteak bultzatuz. Izugarritzko triskantzak egin dituzte, bai, baina lasai jokatu dute. Bazekiten edozein gauza pasatuz gero Gobernuek euren babesera aterako zirela, bestela mundu mailako finantza-sistema kolapsatu egingo zelako.

Aberatsen eta pobreen arteko zuloa gero eta handiagoa da mundu zabalean. Aberatsek, dirua eta kapitala dutenak, ez dute erosten, inbertitu egiten dute. Pobreek, noski, ezin dute erosi, dirurik ez dutelako. Gauzak horrela, dutenen eta ez dutenen arteko zuloa handituz doa.

Ez gara mintzo soilik herrialde aberatsen eta pobretutakoaren artean. Ameriketako Estatu Batuetan, esaterako, 300.000 lagun aberatse- nek herrialdeko hurrengo 140 milioi lagunek adina dute. Beste era batera esanda, herrialdeko lagunaren %1ak aberastasunen %40 kontrolatzen du. Eta, aldea handituz doa urterik urte.

## "BANKUAK GUREAK DIRA"

**Krisi egoeratik ateratzeko Gobernuak hartzen ari diren neurriak** kritikatu beharrean gaude. Finantza krisiari aurre egiteko bankuak diruz bete dituzte. Diru hori ez dator zerutik, denon dirua da. Ez gurea bakarrik, gure seme-alaben eta bilobena ere bada.

Urteak beharko dira egoera hau iraultzeko. Gure bankuak dira, gure diruz bete dituztelako. Gure diruz bete badituzte, banku horiekiko kontrola izan beharko genuke. Bankuen sozializazioaz mintzo naiz, ez nazionalizazioaz. Posible da diotena, bai legalki, bai teknikoki; borondate politiko kontua da.

Egoera honetatik ateratzeko neurri sorta proposatuko dut, errezeta magikorik ez dudana arren. Bizi ditugun lau krisien artean ekologiarena da garrantzitsuenak. Horregatik, lehenik azpimarratu nahiko nuke ekologiarekin zerikusi duten proiektuak eta ekimenak bultzatu behar direla. Guztiona den altxor batez mintzo gara, biziraupenerako ezinbestekoa. Proiektu eta asmo ekologikoak dituzten enpresa eta gizabanakoak lehenetsi behar dira, beraz.

**Neurriak.** Hauek dira aipatu berri ditudan zenbait neurri:

- Kredituen sistema berritzatu: Finantza krisia eragin duten horiek, mundua kasino erraldoia bihurtu dutenak, orain mesfidati dira herritarrei dirua emateko orduan. Joko bat balitz hartzen ditu mundu mailako finantzen egoera, eta hori arautu beharra dago.
- Nazioz gaindiko finantza transakzio guztien gaineko zerga ezarri, Tobin tasa bezala ezagutzen dena.
- Errenta altuenen gaineko zergen handitu: Alderantzizko munduan bizi gara, egun aberatsek ez dituzte zergak ordaintzen, eta langileek, bai; honi buelta eman behar zaio.
- Pentsio-funtsa publikoen bermea segurtatu.
- Hegoaldeko herrien kanpo-zorra barkatu: Bide batez, esan, herrialde horiek aspaldi ordaindu zutela zorra bere osotasunean.
- Atzerrian egiten diren ekimen eta proiektuen bideragarritasun ekologikoa bermatu, batez ere Afrikan.
- Zerga-paradisuen itxi.
- Europako Bankuaren gaineko kontrola berreskuratu.
- Nazioarteko Moneta Funtsa birsortu: Beharrezkoa da hartzekodun lanak egiteko eta arautuak egoteko. Hori bai, argi utzi behar Nazioarteko Moneta Funtsa, egun dagoen bezala, ez duela balio zeregin horretarako.

Ikusten den bezala, borondatea badago, posible da krisitik ateratzea ahalbideratuko gaituzten neurriak hartzea. Neurri gehiago ere badaude, noski, baina aipatu ditudanak betez gero, bestelako egoera batean gaudeke, ziur.



# XXI. MENDEKO ESKLABOAK

## › GORKA QUEVEDO

**H**iztegi begiratzuz gero, esklaboa jabe baten menpe dagoen askatasunik gabeko pertsona da. Esklabotzaren inguruan zerbait gehiago jakin nahi eta entziklopedian begiratzuz gero, hauxe irakurri genezake. "Esklabotzak historia luzea eta zabala du mundu osoan. Gizarte eta garaiaren arabera hainbat forma hartu ditu. (...) Badira, ordea, funtsezko elementu batzuk esklaboa-ren egoera definitzen dutenak.

Nagusiarena da esklaboa, honen ugazaba ez ezik jabea baita hura, erosi eta saldu egin dezakeena; horren arabera, nagusitasun praktikoa erabatekoa

izango zen batzuetan, esklaboa biziaren beraren gain agintzen zuena, esklaboa gauzatat harturik; besteetan, berriz, mugatuagoa zen nagusiaren eskubidea, esklaboa pertsona-izaera onartzen zuena. (...) Azkenik, esklaboak ez du bere jabetzakorik: beraren lanaren produktua nagusiarena da (...)"

Batzuk, agian, beste mende edo herrialde batzuetako kontuetaz mintzo garelako pentsatuko dute. Baina, zoritxarrez, esklabotza orain eta hemen praktikatzen da. Ez dago zertan urrutira joan behar horrelako kasuak ikusteko.

**Lege-iruzurra.** Azken asteetan ELAK gisa horretako bi egoera salatu ditu. Lehen Gipuzkoako eraikuntzaren sektorea litzateke. Patronalak eraikuntzako

lan-eskubideen aurka jo du, administrazioen laguntzaz. Lege-iruzurrean egin-dako kontratuen bidez, ehundaka langile azpikontratatu ari dira, asko eta asko eraikuntza publikoan lan egiteko. Langile horiek ez dute inolako lan-eskubiderik; segurtasunaren zein osasunaren aldetik baldintza ezin kaskarra-goetan ari dira. Lanaldiak mugagabeak dira, eta soldatak, miseriazkoak.

La Naval ontzi-oletan gertatzen ari dena ere ELAren salaketarik irmoena merezi du. Pribatizazio politiken bidez, enpresako arduradunek lan-baldintzak ikaragarri okertu dituzte. Azpi-kontratazioa medio prekarietatea zabaltzen ari da, enpresaren irabaziak gizentzen doazen bitartean.

Bi kasu hauetan ugazabak atzerriko langileetaz baliatzen dira euren helburu bakarra lortzeko: patrikak diruz betetzea. La Navaleko egoerak agerian utzi ditu: atzerriko langileak ekarri eta bertan diharduten guztien baldintzak okertzen dituzte. Arazoa ez da nazionalitatea, lan-baldintzena baizik.

Langile-klasea da egoera honen guztien galtzailea; berdin da Euskal Herrian, Errumanian edo Senegalen jaioa izan. ELAK argi utzi nahi du, beste behin, langileekin duen konpromezua. Berdin Euskal Herrian, Errumanian eta Senegalen jaio.

**P.D.** Agian, anekdota batek aurreko guztia laburbiltzeko balio lezake. La Navaleko administrazio-kontseiluko hainbat kide langileak azpikontratatu dituzten kontratetan partaide dira. Gehiago nahi? Ontzi-olaren ondoan hotela eraikitzen ari dira. Fabrikatik ohera, ohetik fabrikara. Astelehenetik igandera. Urtariletik abendura. XXI mendean, enpresa-buru batzuk 'ohe bero'en garaiak berreskuratu nahi dituzte Ezkerraldean.

ELAK ez die utziko.